

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Joxe Mari Irizar Ansa

*Donostia,
Gipuzkoa
(1940-2016)*

Aurkibidea



Biografia



Martuteneko Barkaiztegi baserri-sagardotegian jaio zen, eta bertan bizi da. Aita bertakoa zen; ama, berriz, Loiola auzokoa. Sei senide ziren; osabak eta aitona-amonak ere beraiekin bizi ziren. XVI. mendetik dago dolarea Barkaiztegin. Juanita Larraza maistraren akademiara joan zen hasieran Joxe Mari, eta La Sallera gero. Umetatik ibili da baserriko lanetan. Tratua eramaten zuten plazara, Grosera, eta baita esnea partitu ere, zaldikarroarekin. Gobara ere egiten zuten etxean. Sagardotegia zen, eta bolatokia ere bazuten. Sagardogintzari eutsi diote gaur arte. Sagardogile Elkarteko burua izan da hamazazpi urtean Joxe Mari. Astigarragako emakume batekin ezkondu zen, [Joxepa Goñi](#) rekin, eta hiru seme-alaba izan zituzten. Garai batean erabiltzen ziren gurdien hainbat erreplika erakutsi zizkigun (Tomas Irizarrek eginak).

Zintak

DON-080

- **Proiektua:** Donostiako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2010-02-18
- **Iraupena:** 61 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Idoia
- **Transkribatzailea(k):** Etxeberria, Idoia

DON-081

- **Proiektua:** Donostiako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2010-02-18
- **Iraupena:** 74 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Idoia

- **Transkribatzailea(k):** Agirre, Eli

DON-087

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2010-02-25
- **Iraupena:** 90 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

DON-135

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2011-02-21
- **Iraupena:** 83 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

Pasarteak

1. Dolarea eta sagardoa garraiatzeko gurdiak

- **Erref:** DON-080/001
- **Iraupena:** 0:02:39. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:02:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Sagardogintza
- Euskara » Lexikoa
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Beste garraio batzuk

Laburpena:

<p>Erreplikak erakusten ari da. Dolarea. Bukoiak, barrikak. Galerak eta gurdiak. "Onila". Neurriak.</p>

Transkripzioa

-Horkua da tolaría, e, sagarra egotzeko. Dago sagarra egotzekua, hor goiyen eskubita dagon hoi, eta tolaría; hor sagarra egotu, eta e, hor estutu eta ateatzen da muztiyua. Hoi da kupeleta jute(n) dana, baiño antziña batian basarritatikan leku askota eamaten zan Donostia. Eta Donostia eamateko ibili zian tresnak dia galeran gaiñian eamaten zian "bukoiyak", hemen dauden hauek. Hauk zian "bukoiyak", erabat eoten zian iya galera gaiñian, eta segiran dauden hoiyek barrikak, hoik zian "karreto-barrikak", o bai galeran gaiñian o bai gurdi gaiñian ibiltze(n) zana. Ez zan /etzan/ oain bezela bonbeatzeko gauzik ez zan /etzan/, eta baldeketan itten zan. Eta klao, ontzi batetik bestea pasatzeko hor aurrian dakazun horri, horrek du izena "onilla" eta baldiak horrea hustu, eta ontziak batetikan bestea pasatze(n) zian. Hoi zan...

-“Oniya”...

-“Onilla” hor aurrian daukazun hoi, enbutua bezelako hoi, e. Hoi da “onilla”. Hoi zan ibiltze(n) zana ontzi batetik bestea aldatzeko. Hoik zian, e... eamaten zanian bai Donosti aldea eta baita ere basarritik, basarri batzutan tolaríak zian, bestietan ez, eta batetik bestea eamateko ibiltze(n) zian tresnak zian hoik. Ordun ez zan /etzan/ gaur bezela ez gomaik eta ez, ezta ere bonbaik. Ordun dena baldeka ibiltze(n) zan. Hoi ikusita, geo ya behiyan dauden hauk dia basarritako...

-Eta zenbat, zenbat kupel... bakoitzak, gurdi bakoitzak bere izena dauka ala...?

-Bai, hoik zuten, "bukoiyak" zien hoiyek, e. Hemen dauden barrika, zea hoik, lotuta dauden hoik dia "bukoiyak", eta besti hoik, berriz, izena... esate(n) zaiyote eta dute "karreta-barrika", e. Hoi zuten beren, beren izena.

-Eta zenbat metrokuak-edo ziran?

-Bueno, hoik, e... neurri askotakuak zian, baiño kao, pentsatu idikin eaman behar zuela; ordun izate(n) zan milla, milla eta bostehun litro... Milla litro, inguru hortakuak, e; "bukoiya" seirehunekua eta hoik zian milla lito ingurukuak. Bazian hirurehun-laurehunekuak ere, baiño e... bakoitzak bere, "según" ze iri pare zeukan, haren arabera ibiltze(n) zian hoik, eamateko.

2. Egurrezko dolarea

- **Erref:** DON-080/003
- **Iraupena:** 0:01:12. **Hasi:** 00:03:15. **Bukatu:** 00:04:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Sagardogintza
- Euskara » Lexikoa
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

<p>Erreplikak ikusten. Dolareari buruzko azalpen gehiago. Izan diren aldaketak.</p>

Transkripzioa

-Eta esan dezu hau, goikoa, ehotzeko...

-Goikoa, eskubiko hoi da...

-Eskuz? Hasieran eskuz...

-Eskuz, klaro. Eskuz.

-...emango zitzaion, ez, maratillari?

-Eman horri, bolanti horri bueltaka ematen zitzaion eskuz, sagarra egotzen zan. Eta geo etortze(n) zan tolarea, eta tolaría´re ikuste(n) (de)zu, palankaz eiten zan estutu. E... esku indarra. Hor ez dao /etzao/, giza indarrak iten zun. Hoi da. Geo, oaindaiño ibili da hoi bea ba motorrez o indar [...] ibiltze(n) (d)ana, estutze(n) dala, baiño txistima hoi bea izan da oaindaiño; oain aldatu da. Oain beste tolare mota batzuk daude.

-Eta gero sagar ura horra irteten zan?

-Hoixe, ontziya hor dao, azpiko aldian.

-Azpiko ontzia...

-Hoixe. Horreaxe etortze(n) zan edariya. Muztiyua horra eroitze(n) zan. Eta hortikan geo partitze(n) zan, esan deuna, baldeka hasiyan, geo baita ere atea zian bonbak eskuz eragitten ziyotenak, eta geo beti argindarrez geo etorri zan. Hain benboa gutxin halako aldaketaik ezautu deu eta hoik, hoik behintzat ezautu (d)ittut.

3. Errota eta alperra

- **Erref:** DON-080/006
- **Iraupena:** 0:01:39. **Hasi:** 00:05:48. **Bukatu:** 00:07:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea
- Euskara » Lexikoa

Laburpena:

Erreplikak ikusten. Errota. Alperra.

Transkripzioa

-Hau, garia eta artoa...
-Gariya eta artua, bai, dena. Hoik, alia dena egotzen du.
-Zakuekin... zakuak gora igo...
-Bai, e... tenaza hauekin zakua hartzen zenun eta gora altxatzen zan, bere pare emateko. Klao, ta ordun bertan irikitzen zenun eta hustutzen zan, e, zorru horta. Egotzeko.
-Hortxe hustu eta azpian egongo zan harria, bueltaka.
-Bai, hemen bihan bueltaka harria dago, eoten da.
-Eta gero...
-Eta urak manejatzen zun hua. Urak ibiltze(n) zunian bueltaka-bueltaka, errotako harriya ibiltze(n) zun... eta kao, harriyak egotze(n) zun bezela ya iriña kutxa honta eroitze(n) zan.
-Kutxa hortara... eta zuk holakua ikusita dakazu...
-Bai, oaindik´e martxan badaude holakuak, e.
-Egurrezkua, e?
-Bai, bai, oaindik´e badaude.
-Eta bueno, hemen ikusten dana, hau, e... hori da lurra...
-Harriya... Hoi zan, alperra deitze(n) zizaiyon. Alperra da. E, hoi zan garai batian ez zan /etzan/ oain bezela, e, tratoreik lurra txehetzeko. Ta ordun itte(n) zan lu... zokorra deitze(n) zizaiyon, lor-zokorra da, koskorra ite(n) zanian, e, koskorra hua puskatutzeko ezin zan, eta ordun itten zan horrekin pasa, eta horrekin pasa ondoren, gero pasatze(n) zan harria. E, harria hor dago, horruzkaldian, baiña horrekin pasatze(n) zan zokorrak puskatzeko.
-Alperra, orduan.
-Alperra du bere izena.

4. Pentsua banatzeko gurdia

- **Erref:** DON-080/007
- **Iraupena:** 0:01:24. **Hasi:** 00:07:27. **Bukatu:** 00:08:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Lexikoa
- Lanbideak » Arotzak
- Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea

Laburpena:

Erreplikak ikusten. Pentsua partitzeko gurdia. Osabak egiten zituen gurdiak, eta seme-alabek gero.

Transkripzioa

-Eta hau, gurdi hau?
-Hau ibiltze(n) zuen, e, garai batian... nik holakua Donostin ezautu nun, bi zaldikin, Grosen e... pentsua ta... Kao, Donostin ordun zaldi asko zan, eta horrek ibiltze(n) zun hoi pentsua, lastua... partitzeko, e. Pentsuketaiyan

karrua zan hoi.

-Eta hor aurrian ze juten zan, pertsona bat?

-Persona, aurrian. Ikuste(n) (de)zu, bere... nola dagon hor manibela, frenua emateko. E, horrekin frenua emate(n) zitzaiyon, eta bi zaldikin tiria, eta joaten zan ba, esan dezaun, e... gaurko txoferra izango balitz bezela.

-Bi zaldikin.

-Bai, hau bi zaldikin zan.

-Eta hauek nork iten zitun? Holakuak, baiña benetakuak?

-Holakuak benetakuak hemen aldemeneko lehengusuk itte(n) zittuen. E, beren aita Agustin eta bere semiekin. E... semiak eta alabak ere, nik ez nittun ezautu, baiño esate(n) zuen launtzen aitzen zitzaxkatela, baiño hor ibilli zianak, e, batez ere Tomas, Peio eta Asentxio, hoik hirurak zian. Tomas ta /da/ Peio hil zian, eta oain Asentxio oaindik bizi da.

5. Harrobiko gurdia

- **Erref:** DON-080/008
- **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 00:08:51. **Bukatu:** 00:11:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Lexikoa
- Lanbideak » Arotzak
- Lanbideak » Etxeginak
- Baserrria » Baserriko lanak » Lurra lantzea

Laburpena:

Harriak eramateko gurdia. Gurpilei buruzko azalpenak. Tomas Irizarrek egindako maketak dira.

Transkripzioa

-Eta hau, e, gurdi hau?

-Gurdi hoi /gurdiyoi/ ibiltze(n) zan harrobitik harriya karriatzeko, idikin. Ikusten da paria ibiltzeko dala, e. Bi barra dittunak dia bakarka ibiltzeko, eta erdin pertika dutenak dia idi pariak o zaldi pariak ibiltzeko. Hau zan ibiltze(n) zana harrobitikan batetik bestea harri biltzen, partitzen ta, auzolanian ta holakuekin ibiltze(n) zan.

-Eta desmon... aurrekua eta atzekua kendu iten zitzaiyon? Hau, ohol...

-Bai, kostauko ohol hoik nahi zanian kendu itten zitzaiyon. Hartara bi... bi klasetako baliyo izate(n) zuen: nahi baldin bazun karga itxin ibiltzeko, eta nahi badezu zerbaitte irikin ibiltzeko ´re bai balio zuna. Baiño hoi gehiyenian ibiltze(n) zan harrobiko lana eitten.

-Eta hemen plakatxo bat daukate, zenbakiyakin. Hori bazeukaten ala...?

-Ez, guk dakazkigu markatuta denak beren zenbakiyakin, zeatik oain in nahi deu... Oain ni esplikatzen ai naizen hau, esaten ai naizen hau, jarri nahi diyote bakoitzai beria. Oain lan hortan ai gea, e. Ordun, libru bat egiña dago, e, beren izenakin ta beren zenbakiyakin, eta oain nahi deuna hua jarri bakoitzai etortze(n) danian “pues” letu dezala. Irakurri dezala zer, zertako zian. Hoi itten ai gea oain.

-Eta hauek danak... bueno, ikusten da egurra dala gehiena.

-Dena, dena.

-Gurpillak egurrezkuak dira?

-Kurpillak egurrezkuak. Bakar-bakarrik uhela eta txopiñak eta erdiko ardatza, hoik dia ya... lehen-lehen egurrezkuak izaten zian hoik ere, baiña gure ezaueran gehiyena ya burnira pasa zan.

-Eta txopiña?
-Bai, txopiña da hau, hemen ateatzen dan hoi.
-Eta hauek ze, zeinek in ziton, maketa hauek?
-Hauek in zittun Tomas Irizarrek. E, lehengusua... aita zanan lehengusuak.
Hoi soldaduska joan artian o beti aittu zian holako karruak eitten, eta geo kamioiyen karrozeiyak eitten arittu zian, eta gero jubilatu zanian, "pues" tresna hauek danak in zittun.

6. Besabea edo lauhortza

- **Erref:** DON-080/009
- **Iraupena:** 0:00:47. **Hasi:** 00:11:16. **Bukatu:** 00:12:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Lexikoa
- Baserría » Baserriko lanak » Lurra lantzea

Laburpena:

Erreplikak ikusten. Besabea edo lauhortza, lurra harrotzeko.

7. Lera, besabea eta belarretarako gurdia

- **Erref:** DON-080/013
- **Iraupena:** 0:03:28. **Hasi:** 00:12:34. **Bukatu:** 00:16:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Lexikoa
- Baserría » Baserriko lanak » Lurra lantzea

Laburpena:

Erreplikak erakusten. Lera izeneko gurdia eta besabea. Belarretarako gurdia. Eskuarea, sega eta laiak.

8. Area eta itzaina

- **Erref:** DON-080/014
- **Iraupena:** 0:02:32. **Hasi:** 00:16:02. **Bukatu:** 00:18:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Euskara » Lexikoa
- Baserría » Baserriko lanak » Lurra lantzea

Laburpena:

Erreplikak ikusten. Area. Zein egur erabiltzen zen tresnak egiteko. Are-hortzak. Itzainak eta itaurrea.

9. Xaboia partitzeko zaldi-karroa

- **Erref:** DON-080/016
- **Iraupena:** 0:02:13. **Hasi:** 00:19:00. **Bukatu:** 00:21:13

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Lexikoa
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak
- Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea

Laburpena:

Erreplikak ikusten. Area. Zaldi-karroa, lixiba edo xaboia partitzekoa. Nola frenatzen zuen. Dendaz denda. Lizarriturri xaboi lantegia.

10. Marka, lurrian errenkak egiteko

- **Erref:** DON-080/017
- **Iraupena:** 0:00:35. **Hasi:** 00:21:13. **Bukatu:** 00:21:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Lexikoa
- Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea

Laburpena:

Erreplikak ikusten. Marka, lurrian errenkak egiteko.

11. Simaurketako gurdia

- **Erref:** DON-080/018
- **Iraupena:** 0:01:17. **Hasi:** 00:21:48. **Bukatu:** 00:23:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Lexikoa
- Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea

Laburpena:

Simaurketarako gurdia. Gurpil itxien arrazoia.

12. Bakarka erabiltzeko besabea

- **Erref:** DON-080/020
- **Iraupena:** 0:00:33. **Hasi:** 00:23:16. **Bukatu:** 00:23:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Lexikoa
- Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea

Laburpena:

Erreplikak ikusten. Besabea, animalia bakarrarekin erabiltzekoa.

13. Harrobiko gurdia eta lera

- **Erref:** DON-080/021
- **Iraupena:** 0:01:54. **Hasi:** 00:23:49. **Bukatu:** 00:25:43

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Lexikoa
- Lanbideak » Etxeginak
- Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea
- Baserria » Baserriko lanak » Baratztea eta soroa

Laburpena:

Erreplikak erakusten. Harrobiko gurdi txikia. Frenoa. Lera, enborrekin erabiltzekoa. Kupelaren egurrezko kanila.

14. Karretilak eta karroak

- **Erref:** DON-080/023
- **Iraupena:** 0:03:16. **Hasi:** 00:25:46. **Bukatu:** 00:29:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Lexikoa
- Lanbideak » Etxeginak
- Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea

Laburpena:

Erreplikak erakusten. Egurrezko karretila. Melokotoia biltzeko karroa. Frenoa, zapata; apreta josten zitzaion. Pertika. Harrobirako karroa.

15. Igeltseroen karroa

- **Erref:** DON-080/025
- **Iraupena:** 0:01:26. **Hasi:** 00:29:12. **Bukatu:** 00:30:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Lexikoa
- Lanbideak » Etxeginak
- Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea

Laburpena:

Erreplikak erakusten. Igeltseroen karroa. Gorpilen kolorea. Espitak. Kontainer lana egiten zuen.

16. Marmola eramateko gurdia

- **Erref:** DON-080/026
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:30:38. **Bukatu:** 00:32:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak
- Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea

Laburpena:

Erreplikak erakusten ari da. Marmolezko piezak eramateko gurdia. Altuna marmol lantegia, Antiguan. Marmola nola pulitzen zuten. Gurpilak.

17. Ikatza partitzeko karroa

- **Erref:** DON-080/027
- **Iraupena:** 0:00:57. **Hasi:** 00:32:33. **Bukatu:** 00:33:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak
- Baserría » Baserriko lanak » Lurra lantzea

Laburpena:

Ikazkinen zaldi-karroa. Ikatza eta egurra partitzeko.

18. Berdurarentzat gurdia eta belarketakoa

- **Erref:** DON-080/029
- **Iraupena:** 0:02:07. **Hasi:** 00:33:38. **Bukatu:** 00:35:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Euskara » Lexikoa
- Baserría » Baserriko lanak » Lurra lantzea

Laburpena:

Eguneko berdura baserrira jaisteko karroa. Belarketarako gurdia. Ezpata. Gurpila.

19. Militarren eta okinen karroak; enborrak garraiatzeko gurdiak

- **Erref:** DON-080/031
- **Iraupena:** 0:03:17. **Hasi:** 00:35:56. **Bukatu:** 00:39:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak
- Euskara » Lexikoa
- Baserría » Baserriko lanak » Lurra lantzea

Laburpena:

Militarren karroa. Mandoarekin. Okinen karroa. Rich. Enborrentzat lera. Enborra zerrategira eramateko karroa. Beraiek zenbat gurdi zituzten baserrian.

20. Zaldi-karroa, plazarako

- **Erref:** DON-080/033
- **Iraupena:** 0:02:48. **Hasi:** 00:39:30. **Bukatu:** 00:42:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Lexikoa
- Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroztera
- Baserría » Baserriko lanak » Lurra lantzea

Laburpena:

Erreplikak erakusten. Zaldi-karroa berdura eta esnea partitzeko. 14 urterekin hasi zen bera tratuarekin plazara joaten, Grosera. Frenoak.

21. Asto karroa eta zaborra biltzekoa

- **Erref:** DON-080/034
- **Iraupena:** 0:03:34. **Hasi:** 00:42:18. **Bukatu:** 00:45:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Lexikoa
- Baserría » Baserriko lanak » Lurra lantzea
- Lanbideak » Udal langileak

Laburpena:

Erreplikak ikusten. Asto karroa. Donostiako zabor biltzaileen karroa. Lehen dena konpostatzen zen. Harri ikatzaren koka ez da desegiten; zaborra bereizten ibiltzen ziren batzuek. Galerari buruzko azalpenak.

22. Zaborra biltzeko galera

- **Erref:** DON-080/039
- **Iraupena:** 0:01:52. **Hasi:** 00:47:06. **Bukatu:** 00:48:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Lexikoa
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Baserría » Baserriko lanak » Lurra lantzea

Laburpena:

Erreplikak erakusten. Antzinako erretratua. Zaborra biltzeko galera. Baserritarrak elkartu egiten ziren, txandaka erabiltzeko. Konposta. Auzolana. Taketak. Frenoak.

23. Arrandegietako karroa

- **Erref:** DON-080/041
- **Iraupena:** 0:00:43. **Hasi:** 00:49:03. **Bukatu:** 00:49:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Lurra lantzea
- Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak

Laburpena:

Erreplikak ikusten. Arrandegietako karroa. Moilatik dendara kaxak eramateko, eskuz.

24. Paseorako karroa eta maleteroena

- **Erref:** DON-080/043
- **Iraupena:** 0:00:44. **Hasi:** 00:49:58. **Bukatu:** 00:50:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak
- Euskara » Lexikoa
- Baserrria » Baserriko lanak » Lurra lantzea

Laburpena:

Paseorako karroa. Donostiako geltokiko mateleroen karroa.

25. Gobara egiteko tresnak

- **Erref:** DON-080/047
- **Iraupena:** 0:03:48. **Hasi:** 00:51:38. **Bukatu:** 00:55:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Lexikoa
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea

Laburpena:

Arropa garbitzeko tresnak. Ura irakiteko tresna. Kuela. Suila. Mahaia. Lixiba. Koloretakoa eta zuria aparte. Xaboia. Donostiatik ekartzen zituzten maindireak, garbitu eta plantxatzeko.

26. Biko dolarea

- **Erref:** DON-080/051
- **Iraupena:** 0:02:47. **Hasi:** 00:56:38. **Bukatu:** 00:59:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Lexikoa
- Baserrria » Baserriko lanak » Lurra lantzea
- Baserrria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa

Laburpena:

Erreplikak erakusten. Biko dolarea. Prentsa. Tina. Barrika-erdia. Ehotzekoa. Piezen izenak.

27. Zutikako kupela

- **Erref:** DON-080/054
- **Iraupena:** 0:00:44. **Hasi:** 01:00:00. **Bukatu:** 01:00:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Lexikoa
- Baserrria » Baserriko lanak » Lurra lantzea
- Baserrria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa

Laburpena:

Erreplikak erakusten. Zutikako kupela eta bere atalak: zipotza, ateleihoia, maratila, azpi-zunbilak...

28. Barkaiztegi: sagardoa eta irizartarrak

- **Erref:** DON-081/002
- **Iraupena:** 0:02:03. **Hasi:** 00:00:33. **Bukatu:** 00:02:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak

Laburpena:

Martutene Amara Behea zen lehen, eta Artzain Onaren eliza tokatzen zitzaion. Barkaiztegi baserriaren historia. 1680tik gorde da Irizar abizena eta orduan ere sagardoa egiten zuten.

29. Esnetik sagardora

- **Erref:** DON-081/004
- **Iraupena:** 0:02:52. **Hasi:** 00:02:44. **Bukatu:** 00:05:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak

Laburpena:

<p>Barkaiztegiko bizimodua. Tratuarekin joaten ziren Donostiara. Berdura, esnea eta sagardoa. Lasai bizi zen jendea, baina lan gogorra, eskuz. Ukuilua noiz berritu zuten. Gurelesa sortu zen. Sagardogintza nola indartu zen.</p>

Transkripzioa

-Ordun egunero, Donostia berdurakin juten giñan, nere aurrekuak ere bai. Sagardua, gutxio-gehiyo eiten zan, ukuillua're bazan. "O sea", zan basarri, oso nahasketa asko zittuna: berdura, esnia... E, nola karrozeiya hemen lehen ikusi dittugun /ikusittun/ tresna hoik eitten zan lekun basarritarrak ere etortzen zian horrea. Horrea etortzen zanian, gutxienian ere, o tortilla bat jan o, botilla bat sagardo eanez, eta ordun, gaiñea oaingo aldian lasai bizi zan jendia ordun. Ordun, etorri ta eun bat lasai upel onduan eoteko ez ziyon inportik jendiai, oso lasai eoten zan.

-Orduan ez zan ordutegirik egongo?

-"Qué va, qué va". Ez zan...

-Sagardotegiyan eoteko...

-Beste, beste bizitzeko beste itxura bat zan. Lasaiyao, ez gaur bezelako korrikaik ez zeon.

-Baiña lana erruz ingo zenuten.

-Bai, izan zan, lan gogorra itten zan asko ordun. Pentsatu gaur makineiyakin ta asko kentzen dezu baiño ordun dena zan esaten dan bezela asto-lana, dena, dena esku-lana. Ta horrek asko lotzen zun, asko lotzen zun. Ordun, beti izan da e, hemengo inguruko jendia're beti sortzen

zan.

Eta geo, pues pixkaka-pixkaka ni soldadu jun nintzan garaiyan ere, oain taberna dakagun lekun ukuillua zan. Eta, ordun goguan dakat, Don Ignacio Markuleta eo, betenaiyua Donostikuak, eta harek ukuillua hola ez zeola eukitzeik eta hobia zala atetzia ta ukuillu berri bat eittia ta, gu gaiñian bizi ta. Pues, sanidade aldetikan eta, bueno, pues, ordun egin gendun ukuillu berriya, oain. Ukuillu berriya in zan, e, telebisiyoik ez zaiye jarri ez zeolako, gaiñontzian, bentilaziyuak eta, nik ez dakit, atzeneko maillako ukuillua in zan. Behiyak'e kanpotik ekarri ta, bueno, in zitzezken ukuilluik onena in zan. Baiño azken batian eitten ziñun numeruak eta, Donostin saltzen zun garaiyan bazeon defenditzia, e, berdurakin ta esniakin juten ziñan eta bi merkau itten ziñun ta ondo. Baiño geo, Gurelesa sortu zan garaiyan hari entregatzeko, ez zun merezi, ez zun merezi. Ta nola sagardua ein eitten zan, pues ordun pixkat gehixeo heltzen hasi giñan sagardo ittiari. Eta etorri zan sagardua, oso, oso galtzea eittetikan. Edari /erai/ merke bat, katalogatuta zeon edari /erai/ ona zala baiño, gauz merke bat, eta basarritarren edari /erai/ bat. Eta bueno, kosta in da, kosta in da baiño, nik uste pixkaka-pixkaka sagardua bere lekua eramaten saiayatu gea ta, hala, hala in da.

30. Zutik jatea eta txotx garaia

- **Erref:** DON-081/005
- **Iraupena:** 0:01:47. **Hasi:** 00:05:36. **Bukatu:** 00:07:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak

Laburpena:

<p>Sagardoa nora saltzen zen lehen. Sagardoa probatzera joaten ziren erosleak. Zutik jatearen ohitura. Txotxeko gora-behera.</p>

Transkripzioa

-Geo pues e, baita ere gertatu da, sagardua saltzen zan ordun oso leku berezitan, Donostin hiru-lau lekutan ta, alkarte eo soziedadetan beste batzuk eta, hortikan etortzen zian sagardua proatzea. Oain daon moda hau, oaingo golpe, "boom" hau, sortu zan hortik, gu ez giñan jun merkau horren billa, bea etorri zan gugana. Ordun, hoik etortzen zian eta, joño, "hi, hola ta hola izan gaitxik sagardua probatzen eta..." hortik dator zutik jatia ere. Zeatik txotxian basoka saltzen zan garaiyian, exeita zan ta txarruakin. Jartzen zan, upel bat hasi behar zala txotxian eta upel batetik eaten zan, jarri...

-Hua bukatu arte?

-Hua bukatu arte, eta jenealian ingurukuak baldin bazian jarri behar zuenak, erabakitzen zuen "bueno hi, nik holako fetxetan..." ta baita're itten zittuen elkartiei juntatu eta erabaki "aizak, hiria etorrixio zioke eta hik jar zak oain eta hik bukatzian nik jarriko dit /jarrikoit/, eta". Giro bat zeon, sagardogillien artian, eta bueno horrek ekarri zun sagardua enboteillatzea hasi zan garaiyian, sagardua enboteillatzen hasi zan garaiyian, alkarte hoikin lagunak etortzen. Eta, "joño, hauxe gauza politta" eta pixkaka-pixkaka-pixkaka ahoz aho eindako lan bat da, oaingo txotxeko gorabehera hau, hortik etorri da. Eta egiya esan bihar baldin ba, sagardogillia horrekin defenditu da e. Jendia etorri dan horrekin, zeatik botilla sagardua saltzen dan preziyuan...

-Ez du merezi?

31. Sagardogintza, lehen eta orain

- **Erref:** DON-081/006
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 00:07:23. **Bukatu:** 00:08:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:

Sagardoa egiteko prozesua, lehen eta orain. Sagarra umatzea. Garbitasun handiagoa orain. Janari eta edari gogorrak lehen. Tabernetan, bikarbonatoa.

32. Dolareak eta salmenta

- **Erref:** DON-081/008
- **Iraupena:** 0:02:32. **Hasi:** 00:09:21. **Bukatu:** 00:11:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Sagardogintza
- Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak
- Baserría » Baserriko lanak » Sagarra, sagastiak

Laburpena:

<p>Lehengo dolareak, egurrezkoak. Aldaketak dolareetan: hormigoia... Zortzi milioi litro edaten ziren lehen ere. Sagarra. Nola saltzen zen lehen. Muztioa.</p>

33. Pitarraren zergatia

- **Erref:** DON-081/009
- **Iraupena:** 0:02:18. **Hasi:** 00:11:53. **Bukatu:** 00:14:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzeta eta soroa
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:

Pitarraren zergatia. Muztioa, zizarra eta pitarra. Umeek ura bezalaxe pitarra edaten zuten lehen. Ondo iruditzen zaio hori.

34. Sagardogintzaren gainbehera eta biziberritzea

- **Erref:** DON-081/010
- **Iraupena:** 0:04:15. **Hasi:** 00:14:11. **Bukatu:** 00:18:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera

Laburpena:

Sagardogintzaren gainbehera. Sagastiak hondatu egin ziren, eta gero sagarra falta zen. Asturiasera eta Galiziara jo zuten. Frantziara, sagar bila, 1981ean. Beste toki batzuetako sagardoak eta sagar motak. Itsasoan aldatutako mentuak.

35. Sagardoak bere botila

- **Erref:** DON-081/011
- **Iraupena:** 0:00:56. **Hasi:** 00:18:26. **Bukatu:** 00:19:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera

Laburpena:

Aldaketa handiak botilaratzeko moduan. Botila berezia sagardoarentzat, 1983an.

36. Sagar motak

- **Erref:** DON-081/013

- **Iraupena:** 0:03:35. **Hasi:** 00:19:34. **Bukatu:** 00:23:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko lanak » Sagarra, sagastiak

Laburpena:

<p>Sagar motak. Gaziak, gezak eta mikatzak. Etxeko sagastiko sagarrak. Txalaka, urtebia, Goikoetxe sagarra, mokottia, boskantoia, moko sagarra, patzoloa... Errege sagarra.</p>

37. Sagardogintza: irakinaldiak eta kupelak

- **Erref:** DON-081/015
- **Iraupena:** 0:03:24. **Hasi:** 00:23:24. **Bukatu:** 00:26:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak
- Baserrria » Baserriko lanak » Sagardogintza

Laburpena:

<p>Sagardogintza. Sagarraren irakinaldiak. Sagardoa borobiltzeko denbora behar da. Kupel aldaketarik ez lehen. Maiatzean botilaratu egiten zen, beroa hasi aurretik; orain ez. Hotza eta garbitasuna.</p>

38. Kupelgileak

- **Erref:** DON-081/017
- **Iraupena:** 0:01:27. **Hasi:** 00:26:55. **Bukatu:** 00:28:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak

Laburpena:

Inguruko kupelgileak. Asturiasen bi daude. Gaztaina erabiltzen zen gehien. "Txiskua" zer den: erdibitutako kupela.

39. Sagardotegiko giroa eta bolatokia

- **Erref:** DON-081/018
- **Iraupena:** 0:04:10. **Hasi:** 00:28:22. **Bukatu:** 00:32:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Aisia » Taberna giroa » Jokoak
- Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak
- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Artisauak

Laburpena:

<p>Sagardotegiko giroa. Emakumea noiz joaten zen. Potoa, toka, bolatokia, zapoa. Errondak jokatu, eta kupelean apuntatu. Birlak eta bola egiteko, artea

edo sagarrondoa erabiltzen zituzten. Apustuak. Argazkian, Jose Mari gaztetan, sagardotegiko langileekin (tartean familiakoak).</p>

40. Bolo eta toka txapelketak

- **Erref:** DON-081/019
- **Iraupena:** 0:02:03. **Hasi:** 00:32:32. **Bukatu:** 00:34:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Jokoak
- Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak

Laburpena:

Bolatokiko txapelketak eta tokakoak. Distantzia oinekin neurtzen zen token. Banaka jokatzen zen. Elkartekoek elkarri jarri birlak.

41. Sagardotegiko janaria

- **Erref:** DON-081/020
- **Iraupena:** 0:02:23. **Hasi:** 00:34:35. **Bukatu:** 00:36:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak

Laburpena:

Egunero joaten zen jendea Barkaiztegira, sagardo garaian. Janaria etxetik eta kazuelak. 3.000 litroko kupela nola hustu zen egun gutxian, basoka. Bakailaoa, antxoa... Txuleta gerokoa da.

42. Sagardoa eta edalontziak

- **Erref:** DON-081/021
- **Iraupena:** 0:02:11. **Hasi:** 00:36:58. **Bukatu:** 00:39:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera
- Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak

Laburpena:

Sagardo basoaren prezioak. Bi errealetik pezetara. Edalontzi txikiak. Nola garbitzen ziren. Txarroak. Pitxarra, 2,5 litrokoa. Sagardo neurriak.

43. Bertsolariak

- **Erref:** DON-081/025
- **Iraupena:** 0:00:43. **Hasi:** 00:40:21. **Bukatu:** 00:41:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

<p>Barkazitegin ibiltzen ziren bertsolariak: Basarri, Mitxelena, Uztapide, Lazkao Txiki, Lexoti...</p>

44. Gabon eguneko eta Santa Agedako eskea

- **Erref:** DON-081/026
- **Iraupena:** 0:01:41. **Hasi:** 00:41:04. **Bukatu:** 00:42:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Eliza giroko ospakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Ohiturak eta sinesmenak
- Aisia » Jai-giroa » Santa Ageda

Laburpena:

Gabon egunean baserriz baserri kantuan ibiltzeko ohitura berreskuratu dute. Betiko ohitura. Santa Agedan, bertsolariekin.

45. Baserria beteta

- **Erref:** DON-081/029
- **Iraupena:** 0:03:27. **Hasi:** 00:43:52. **Bukatu:** 00:47:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxearen egitura

Laburpena:

<p>Gurasoak, osabak, aitona-amonak, sei senide eta bi morroi, denak etxe batean bizi ziren. Zazpi gela. Neskak alde batera eta mutilak bestera. Umetan errekan bainatzen ziren. Ura noiz jarri zuten. Errekan gobara eta arrantza ere bai. Amuarrainak eta aingirak. Harrapatzeko modua.</p>

46. Ehiza zaletasuna umetatik

- **Erref:** DON-081/030
- **Iraupena:** 0:01:42. **Hasi:** 00:47:19. **Bukatu:** 00:49:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza
- Natura » Fauna

Laburpena:

Ehiza. Paseko txoriak: tortola, galeperra, usoa. Oilagorra. Eskopeta beti izan dute. Umetan, tiragomarekin ere bai: buztantxa eta txolarrea.

47. Eskola txikia eta La Salle

- **Erref:** DON-081/031
- **Iraupena:** 0:03:37. **Hasi:** 00:49:01. **Bukatu:** 00:52:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:

<p>Eskola umetan utzi zuen. Bederatzi urte arte maistra batekin, Juanita Larrazaren akademian. Lau urte La Sallen. Sei mutilek egiten zuten euskaraz, eta burla egiten zieten. Don Julian maisua. Zer ikasi zuen. Zigorra: igandean hara joan, eta biderketak egitea. Normala zen jotzea.</p>

48. Umetako jolasak

- **Erref:** DON-081/033
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:52:48. **Bukatu:** 00:54:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

<p>Eskolako zigorak. Umetako jolasak. Arraspaketan jolasa. Gurdia pertikan igota. Gaiztakeriak.</p>

49. Umetako lanak

- **Erref:** DON-081/035
- **Iraupena:** 0:02:58. **Hasi:** 00:54:57. **Bukatu:** 00:57:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:

Umetatik denetik egiten zuten baserrian. Eskolatik bueltan, merienda eramatera. Berdura garbitu. Botilak garbitu. Hiru seme-alaba ditu, eta haiei ere erakutsi diete lanean. Eskolara joan aurretik, txerriak gobernatzen zituen, eta astelehenetan gobara egiteko ura berotu ere bai. Abereentzat jatena prestatu, neguan.

50. Plazara berdura, gaztaina adarrak eta karakolak

- **Erref:** DON-081/036
- **Iraupena:** 0:02:56. **Hasi:** 00:57:55. **Bukatu:** 01:00:51

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Plazara amonarekin, amarekin eta emaztearekin joan izan da. Prezioa adosteko komeriak eta sufrimendua. Gaztaina adarrak eramaten zituzten arrandegietara, euliak hostoetara joateko. Karakolak ere estimatuak.

51. Etxez etxe esnea partitzen

- **Erref:** DON-081/037
- **Iraupena:** 0:02:19. **Hasi:** 01:00:51. **Bukatu:** 01:03:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Esnea etxez etxe partitzen zuten. Astean behin ordaintzen zuten. Litroa hiru bat pezetan. Esne hartzaileak. Groseko "letxera"; bi preziotako esneak, bi marmita eta bi ilara.

52. Txerria urtero hiltzen zuten

- **Erref:** DON-081/040
- **Iraupena:** 0:02:49. **Hasi:** 01:03:51. **Bukatu:** 01:06:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Baserria » Baserriko lanak » Abere-hiltzea
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

<p>Txerria urtero hiltzen zuten. Prozesua. Hoztutakoan, zatitu. Olorik ez zen garaian, manteka. Errazionamendua. "Txerrimunik". Apaizari onena, solomoa. Orduko apaizak. Don Ramon Trueba.</p>

53. Dena bekatu zen garaia

- **Erref:** DON-081/041
- **Iraupena:** 0:03:03. **Hasi:** 01:06:40. **Bukatu:** 01:09:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Kongregazioak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:

<p>Dena bekatua zen lehen. Elizan sartzea. Etxeko teila buru gainean jarrita, etxetik irteteko. Goizeko zazpian meza mutilentzat eta zortzian neskentzat, aparte; kongregazioak. Dantzarako debekurik ez du ezagutu.</p>

54. Dantzara, oinez eta bizikletan

- **Erref:** DON-081/042
- **Iraupena:** 0:01:29. **Hasi:** 01:09:43. **Bukatu:** 01:11:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Bizikletak eta motorrak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:

Oialumara, Hernanira, Txikierridira... dantzara. Bizikletan eta oinez. Neska laguntzea. 17 urterekin hasi zen neska-lagunarekin.

55. Martuteneko euskara

- **Erref:** DON-081/043
- **Iraupena:** 0:02:38. **Hasi:** 01:11:12. **Bukatu:** 01:13:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:

Martuteneko euskara nolakoa den. Mugak: Errenteria eta Tolosa. Lehen ezberdinagoak ziren, bere ustez. Morroiei entzundako hitzak. Hernaniko euskara berdintsua.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-03-03

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com